

2 / 2001 IRIZPENA

Txandakako Prestakuntzarako Praktiken Programa araupetu duen Dekretuaren Proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2001eko urtarrilaren 31a

I.- AURREKARIAK

Azaroaren 13an sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordearengana Justizi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren idazkia. Idazki horren bitartez, Txandakako Prestakuntzarako Praktiken Programa araupetu duen Dekretuaren Proiektuari buruzko txostena eskatu zion Sailak Batzordeari. Hori guztia egin zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.a artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aipatutako Dekretu Proiektuaren aurrekoa da beren ikasketak bukatzen dituzten gazteen enplegu-aukerak handiagotzeko laguntzak araupetu dituen ekainaren 27ko 333/1995 Dekretua. Dekretu hori lehenik otsailaren 3ko 13/1998 Dekretuaren bitartez aldarazi da, zertarako-eta Euskal Herriko Ogasun Orokorra Antolatzen duten Abiaturuei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzazko Dekretuak sartutako berritasunei egokitzeko, diru-laguntzak araupezen dituen edozein arauk izan behar duen gutxieneko edukari begira

Berehala bidali zitzaion Dekretu Proiektuaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei, egokiesten zituzten proposamen eta iritziak bidal zituzten eta berauek Batzorde Iraunkor edo Lan Batzorde egokiari eskualdatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordearen Ibilera Araudian ezarritakoaren arabera.

2000ko abenduaren 20an lan-bilkuran bildu zen Gizartea Garatzeko Batzordea. Batzorde horrek Irizpen-proposamena egin zuen eta Osoko Bilkurari bidali zion ones zezan. Osoko Bilkurak, 2001eko urtarrilaren 31ko bere bileran, hura onestea erabaki zuen, José Luís Ruiz García Jna. ren boto bereziarekin.

II.- EDUKIA

Txandakako Prestakuntzarako Praktiken Programa araupetu duen Dekretuaren Proiektuko testuak honakook ditu osagai: hitzaurrea, 19 artikulua dituzten hiru kapitulu, Xedapen Gehigarri Bakarra, Xedapen Indargabetzaile Bakarra, lau Azken Xedapen eta bederatzi eranskin.

Hitzaurrea:

Hitzaurrean adierazita dagoenez, txandakako prestakuntzak bizitza aktiboan hobeto gizarteratzen eta lanbideratzen eta lan-merkaturatzen laguntzen du. Izan ere, irakasleak eta enpresak ezagupenak eta lanbide gaitasunak hartzeko gune osagarriak dira. Horregatik, Dekretuaren helburua prestakuntza osagarriko arauzko gunea osatzea da. Horretarako, arautu gabeko prestakuntzaren eremuan lan-zentroetako prestakuntza mota hori araupetu behar da. Pertsona langabetuak integratzeko funtzioak du lehentasuna. Eta pertsonoi eguneroko praktikan irakatsi behar zaie ikastea osatzeko.

Xedapen Atala:

1. artikuluan zehaztuta dago Legearen xedea: Eusko Jaurlaritzaren Justizi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak lanbide hastapeneko edo/eta heziketa okupazionalako ikasketak ematen dituzten heziketa zentroetako ikasleak txandaka prestatzeko praktiken programa garatzeko ematen dituen laguntzak araupezea. Enpresa batean prestatzeko epealdi egituratuez ari gara.

2. artikuluan aipatuta dagoenez, dekretu honetan araupeturik dauden zentro edo erakunde onuradunak ditugu praktika-proiektuak dituzten Lanbide Hastapeneko Zentroak eta heziketa okupazionalako proiektuak dituzten heziketa zentroak, enpresak eta erakundeak, haiek behar bezala onetsita badaude.

3. artikuluan ezarrita dago Lanbide Hastapeneko eta Heziketa Okupazionalako Zentroek praktiken garapenari buruz aurkeztu beharko duten dokumentazioa. **4. artikuluan** adierazita daude praktiken ezaugarriak eta beharkizunak, heziketa zentroak haiei jarraitzeko koordinatzailea eta tutoreak eta enpresek praktiken arduraduna eta irakasleak izendatzeari begirakoak. **5. artikuluan** adierazita daude denborari, iraupenari eta enpresen plantilen tamainuaren ziozko mugari begirako irizpideak.

6. artikuluan ezarrita dagoenez, Eusko Jaurlaritzaren Justizi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak bere gain hartuko du proiektuak egitean ukituriko ikasleen aldetik gainontzekoen aurreko erantzukizun zibilaren eta istripuen arriskuak estaltzeko kontrataturiko aseguruaren kostua. **7. artikuluan** diruz laguntzeko moduko ekintza bezala ezarrita daude Enplegu eta Trebakuntza Zuzendaritzari aurretik jakinarazitako praktikak.

8. artikuluan adierazita daude praktiken esperientzian parte hartu duten tutore, enpresa eta ikasleentzako diru-laguntzarako eskabideak aurkeztu behar zaizkion saila, berauek aurkezteko era eta okerrak edo alderauzketak konpontzeko bidea. **9. artikuluan** adierazita daude eskabidearekin batera aurkeztu beharreko manuzko agiriak.

10. artikuluan ezarrita daude praktiken esperientzian parte hartzen duten tutore, enpresa eta ikasleentzako laguntzen zenbatekoak eta baremoak.

11. artikuluan adierazita dagoenez, Enplegu eta Trebakuntza Zuzendaritzak kudeatuko ditu laguntzak, berauen ebazpena, epeak, errekursoak eta publizitate-prozedura. **12. artikulura** bilduta dago laguntzak ordaintzeko modua.

13. artikuluan zehaztuta daude zentro edo erakunde onuradunen betebeharrak. Eta **14. artikuluan** aipatuta dagoenez, laguntzok ezin helburu bereko beste batzuekin batera daitezke.

15. artikuluan adierazita dago nondik datozen dekretu honen xedea betetzeko ekonomi baliabideak, laguntzotarako zainpeturiko kreditua agortuz gero laguntzak ukatzea eta ekitaldi bateko aurrekontu-kredituei aurreko ekitaldietan aurkeztu bai baina jaramonik egin ez zaien laguntza-eskabideak egozteko gaitasuna betetzekoak alegia

16. artikuluan zehaztuta dagoenez, haiek emateko ebazpean agerraraziko da Europako Gizarte Fondoaren finantzakidetzak.

17. artikuluan aipatuta daude Sailak ezarriko dituen kontrolak, ikuskapena eta bermeak. **18. artikuluan** ezarrita dagoenarekin bat etorririk, diru-laguntzarako eskubidea galduko da, diru-laguntza emateko ebazpenean ezarriko baldintzak betetzen ez badira. **19. artikuluan** araupetuta dago jasotako kopuruak itzultzeko prozedura.

Xedapen Gehigarri Bakarrean aipaturikoarekin bat etorririk, Egailan, S.A. Sozietate Publikoak diruz lagundutako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduketak burutu ahalko ditu.

Xedapen Indargabetzaile Bakarrak ekainaren 27ko 333/1995 Dekretuko II. Kapituluak eta Txandakako Prestakuntzarako Praktiken Programari buruzko xedapenak deuseztatu ditu.

Lehenengo Azken Xedapenean adierazita dago dekretu honen ordezkotza araubidea, administrazio-prozedurari begirakoa. **Bigarren Azken Xedapenak** Justizi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari ahalmena eman dio dekretu hau garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak har ditzan.

Hirugarren Azken Xedapenean adierazita dago dekretu honen kontra errekursoa jartzeko administrazioarekiko auzibidea. Azkenik, **Laugarren Azken Xedapenean** ezarrikoarekin bat etorririk, Legea berau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

III.- OHARBIDEAK

Heziketa akademikoa (arautua nahiz arautugabea) osatzeko lan-praktikak sustatzea ezinbesteko lana da pertsona langabetuentzat; izan ere, horrela haien laneratzeko gaitasuna sustatzen da eta haiek ekoizpen-munduarekin harremanetan jarri edo, batzuetan, berriro jarri ahal dira.

Horregatik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordeak ontzat jo du txandakako prestakuntzarako praktiken programa hau. Izan ere, programa honen bitartez hobetu gura da lanik gabeko pertsonen laneratzeko gaitasuna eta sortu gura dira heziketa zentroaren eta enpresa-eremuaren arteko loturak, ertarako-eta lan-merkaturatzeko prestatzen ari diren pertsona langabetuei ikasketen aldi bereko esperientzia praktikoa emateko. Horrela, prestakuntza zabalagoa izango dute, eta enplegurako aukera gehiago. Batzorde honek ontzat hartu du programa hau, Junior-Enpresa Programa bezala. Izan ere, programa biok bistako antzekotasunak dituzte elkarrekin.

Aurreko kasuan bezala, lan-praktikok 1995etik garatu izan dira Txandakako Prestakuntzarako Praktiken Programaren bitartez (Lanbide Hastapeneko eta Heziketa Okupazionalako Zentroyen azpiprogrametan). Programa hau egungo Dekretu Proiektuak indargabetu duen 333/1995 Dekretuak araupetu du, zein otsailaren 3ko 13/1998 Dekretuaren bitartez aldarazi baita zertarako-eta Euskal Herriko Ogasun Orokorra Antolatzen duten Abiaturuei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzazko Dekretuak sartutako berritasunei egokitzeko eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Justizi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailerako buruen Aginduak kontutan hartzeko. Beraien bitartez egin da ikasturteetan Txandaka Prestatzeji Praktiken Programarako laguntzetarako deialdia, esate baterako, 1999/2000 ikasturterako 2000ko uztailaren 31ko Aginduaren bitartez.

Bereziki, dekretu-proiektu honetan honako alderdiok sartzea jo dugu ontzat:

1. Enpresak ikasle batekiko bere heziketa-lankidetzari uzteko duen aukera, hark behin eta berriz piperrik egiten badu edo jokaera bidegaberik agertzen badu; eta heziketa-zentroan, enpresako praktiketarako plana betetzen ez bada.
2. Gizon eta emakumen arteko aukera-berdintasunaren abiaburua, praktikak garatzeko.
3. Praktikak garatzeko irizpide mugagarriak, aurretik finkatu ez diren eta, gure ustez, beharrezkoak zirenak, hala nola:
 - Praktiken epealdia lanegunez osatuta egotea, eta praktika egunotatik kanpo egin ahal izatea, behar hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzeko txostenaren ostean.
 - Eguneroko praktiken gehieneko 6 orduko ordu kopurua eta asteroko 30 ordukoa zehaztea.
 - Hamaika hilabetetik gorako praktika-epealdi etengabea onartzea, eguneroko eta asteroko orduen aurreko mugekin.
 - Enpresan praktiketan dauden ikasleen kopuruari begira muga bat ezartzea, enpresako langileen kopuruaren arabera.
4. Ikasle minusbaliatuentzako laguntza handiagoak.

Baina, gure ustez, bertan adierazi behar da, halaber, ezen praktiken kalitatea eta garapen zuzena bermatzea oso garrantzitsua dela. Hortaz, praktika horien benetako jarraipen eraginkorra egitea bermatzen duten neurriak sartu behar dira. Era berean, gure ustez, eraginkortasunez bermatu behar da ezen Dekretuan bertan aipaturik dagoen aukera-berdintasunaren abiaburua betetzen dela. Horretarako, era espezifikoan piztu behar da praktiketan emakumezko ikasleak agertzea, emakume gutxi dauden ogibideei dagozkienetan bereziki.

Azkenik, espero dugu 333/1995 Dekretuaren indargabeketak Unibertsitate Zentroyen azpiprograma aurretik deitua eta Lanbide Heziketako Zentroena ez ezabatzea. Dekretu horren ordezkia da, partzialki, dekretu-proiektu hau. Beraren bitartez araupetu da txandakako prestakuntzarako praktiken Programa araupetu da. Programa hori orain lanbide hastapeneko eta heziketa okupazionalako ikasketak taldeari bakarrik zuzenduta dago. Haren ordezkia da Junior-Enpresa araupetu duen

Dekretuaren proiektua ere. Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleek praktika-programak egiten jarraitu ahal izan dezaten, komenigarria da Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako Zentroak onuradun bezala izaten jarraitzen duen araupeketara espezifikoa ezartzea, edo Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako Zentroen eta enpresen arteko lankidetzahitzarmenak ahalbidetzen dituzten beste mekanismo batzuk ezartzea.

Honakook ikusita, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordeak Dekretu Proiektuaren artikuluei begira honako **Kontsideraziook** egitea egokietsi du:

Dekretu Proiektuaren 3. artikulua.

Artikulu honen 1. paragrafoko a) idatz-zatian oker bat ikusi dugu, ahapaldiko azken lerroan. Izan ere, dekretu honen 2. artikulua b) eta c) letretan aipaturik dauden heziketa zentro eta erakundeez ari da.

Praktikak egiten dituzten ikasleak babesik gabe gera ez daitezten, aseguru osagarria izateko aipaturiko beharkizunak betetzen ez badira, gure ustez, beharrezkoa da 3. artikuluko honen 2. paragrafoan honakoa edukia duen testu bat sartzea:

“Horrelakorik gertatuz gero, delako heziketa zentroak hartu beharko du bere gain antzeko aseguru baten kostua.”

Dekretu Proiektuaren 4. artikulua.

Lehenik, aukera-berdintasunari buruz 4. paragrafoan ezarritako ari begira, ondo deritzogu Dekretu-proiektuko paragrafo honetara bildutako adierazpenari. Izan ere, bertan adierazi dagoenez, **“Praktikak gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren abiaburuari egokitu beharra egongo da”**. Hala ere, ez da ezarri aukera-berdintasun hori betetzea era eraginkorrean bermatzen duen mekanismorik.

Horregatik, gure ustez, beharrezkoa da 1998-08-16 MAn aipatutako zerrendaren arabera emakume gutxi dauden ogibideei dagozkien praktikan emakumezko ikasleak egotea bermatu eta piztea. Ere ezberdinetatik, lan-merkatuko bereizketari aurre egin behar zaio, eta uste dugu ezen garrantzitsua dela dekretu-proiektu honetan araupeturiko praktiken fasetik hasia, beraz lan-merkatu aurre-aurretikoa baita. Horrela, honako neurriok sartzea mahaigaineratu gura dugu:

- Diruz lagundu ahal izatearen ondoretarako, enpresak kobratzen duen orduko prezioa igotzea, baldin eta aipaturiko arauaren arabera emakume gutxi dauden ogibide eta lanbideetan emakumezko ikasleek egiten badituzte praktikak.
- Gehienez 25na ikasle dituzten enpresetan lehentasuna emango zaie emakumezko ikasleei, aipaturiko arauaren arabera emakume gutxi dauden ogibide eta lanbideak egiteko praktiken kasuan.
- 25na langiletik gorako enpresetan, praktikak egiteko hautatutako ikasle taldearen ehuneko 30 ikasle emakumezkoak izatea eskatuko da, baldin eta praktikak horiek emakume gutxi dauden ogibide eta lanbideak egitekoak badira. Gutxieneko hori ez betetzea frogatu beharko da, nola-eta praktikak dagozkion adar edo espezialitatean matrikulaturik behar den ikasle kopururik ez dagoela egiaztatuz.

Gure ustez, honako aldarazpenok egin behar dira, halaber:

- Artikulu honen 1. paragrafoan ezarrita daude hezkuntza zentroko praktiken koordinatzailearen lanak eta erantzukizunak. Gure ustez, koordinatzaileak, administrazio-tramitazioa burutzeaz gain, praktiken helburua betetzea bermatzeko beharrezko kontrol- eta jarraipen-ekintzak egin beharko lituzke. Helburu hori honakoa da: ikaslearen lanbide gaitasunak hobetzea eta hari etorkizunean lanbideratzea erraztea. Ildo horretatik, hobe da koordinatzaile hori ikaslearekin eta enpresarekin harremanetan jartzea, zertarako-eta honakoa bermatzeko: ezen ikasleak enpresan

egiten dituen lanak funtsean lagungarriak direla heziketa zentroak emandako hezkuntza-dukien aplikazio praktikorako.

Beste alde batetik praktiken arduradunak diren tutoreen eta programari loturiko enpresaren artean loturaren bat egoteak tutoreei agindutako jarraipen-lana mugatu ahal du. Ildo horretatik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordeak uste duenez, interesgarria da artikuluetan klausula bat sartzea, tutoreak ezkontidetasuna, aurrekotasuna eta ondorengotasuna eta bigarren mailarainoko odolkidetasuna edo kidetasuna barnean hartzen dituen ahaidetasunaren zioz enpresa hartzailearekin loturik ez egotea eskatzen duena, ezta enpresarioarekin edo zuzendaritza-karguak dituztenekin edo sozietate-era juridikoa duten enpresen administrazio-organoetako kideak direnekin ere.

- Artikulu honen 3. paragrafoan honakoa eranstea: **"Halaber, ikasleek bukaerako ebaluazioko prozesuan parte hartu beharko dute."**

- 6. paragrafoan "... berauek eten edo bukatzea erabaki ahalko du" kendu eta beronen ordean **"praktikak eten edo bukatuko ditu, zuzentzeko neurririk sartzen ez bada"** jartzea. Kontutan hartu behar da ezen praktiken plana nabarmen aldatuz gero hartu beharreko neurriak araupetzen ari direla.

- 7. paragrafoan **"Ikasleek praktiken epealdia bukatutakoan jasotzea izango dute..."** kendu eta beronen ordean **"Ikasleek, ebaluazioa positiboa bada jasoko dute egiaztagiri bana..., heziketa zentroak eta enpresak luzatutako ziurtagiri bana..."** jartzea. Izan ere, bermatu gura da ezen ikasleak egindako praktiken ziurtagiri bat lortzen duela.

Dekretu Proiektuaren 5. artikulua.

Proiektuaren artikulua honen 1. paragrafoan jarri behar denez, prestakuntza-ekintza bukatzen denetik praktikak hasi arte pasa daitekeen gehieneko epealdia 6 hilabetekoa izango da. Izan ere, epealdi hori ez da luzeegia eta ez dira ahaztuko ikasitako heziketa-dukien teorikoak. Horrela, malgutasun handiagoa emango zaio ikasleari, eta heziketa zentroari, laneratzeko ibilbideak diseinatzeko.

Proiektuaren artikulua honen 2. paragrafoan azaldu da abuztuan praktikatik egin ezina. Hala ere, abuztua ondo guztietarako lanerako hil bihurtzen ari da era hazkorrean. Izan ere, globalizatzeko-prozesuan murgilduta gaude. Horregatik guztiatik, gure ustez, beharrezkoa da hil hori besteak bezala tratatzea eta hil horretan praktikak egiteko aukera ematea, gainerako hiletan bezala.

Dekretu Proiektuaren 9. artikulua.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordeak uste du ezen artikulua honetako g) idatz-zatian **"izaera bereko laguntzak edo diru-laguntzak"** kendu eta beronen ordean **"edonolako laguntzak edo diru-laguntzak"** jarri behar dela. Izan ere, ez dute beste laguntza publikorik jaso behar ez bezala jaso den edonolako diru-laguntza baten herri dirua itzuli beharra bete arte. Eta zehatzeko prozesurik badago, beharrezko ebazpena eman arte itxaron beharko da itzuli beharra dagoen jakiteko.

Dekretu Proiektuaren 10. artikulua.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordearen ustez, ikasleei joan-etorrietako gastuetarako ematen zaizkien laguntzak, Proiektuaren artikulua honetako a) idatz-zatian ezarrita daudenak, ez dira nahiko, herri garraio kolektiboaren prezioak ikusita. Era berean, gure ustez, 2 kilometrotik beherako lekualdaketa batek askotan sorrarazten ditu garraio-gastuak. Hori dela eta, konpentsazio edo laguntza motaren bat ezarri behar da.

Ikasle fisikoki edo psikikoki minusbaliatuentzako joan-etorriengatik laguntzei dagokienez, 49.916 pezetako gehieneko laguntza gehigarria ezartzea oso baztertzaila da. Edozein kasutan, joan-etorrietako egun bakoitzeko laguntza gehigarria ezarri beharko litzateke. Egin-eginean ere, bestela, praktika-programak atzitzeko benetako aukerak mugatzen ari zaizkie horrelako ikasleei. Dena den, horrelako kasuetan gastuen frogagiriak aukezteak manuzkoa dela eta, ez bide da beharrezkoa gehieneko muga finkatzea; baina, gehieneko mugarik ezartzekotan, kontutan hartu beharko dira ikasleak agertzen duen minusbalotasuna eta herri garraio kolektiboa erabiltzeko ikaslearen aukerak.

Proiektuaren b) idatz-zatian aipatuta daude enpresenganako laguntzak. Idatz-zati horretan deigarria da enpresei ematen zaien laguntzaren zenbatekoaren txikipena, zenbateko hori praktikan benetan egindako orduko 83 pezeta / 0,50 eurokoa baita. Orain arte enpresari degokion zenbatekoa ezartzeko finkatutako formula (1999/2000 ikasturteko Txandakako Prestakuntzarako Praktiken Programarako laguntzetarako deialdia egin duen 2000ko uztailaren 31ko Agindua) honelaxe ezarri da: praktiketako orduko 70 pezeta + 15.000 x irakasle kopurua. Enpresenganako kontzeptu horrengatik laguntzetatik ateratzen diren kopuruak apalak eta osagarriak izan arren, benetako 500 orduko eta bi irakasleko kasu praktiko batek enpresenganako laguntzen %35eko beherapena dakar. Hori dela eta, nekez igoko da haien eskaintza. Horrengatik, laguntza horiek berriro ikustea proposatu gura dugu.

Beste alde batetik, 10.c artikuluan ezarrita daude joan-etorrietako gastuak kontutan hartzen dituzten zentroentzako laguntzak, baina ez da tutoreen nomina kontutan hartzen. Izan ere, laguntzak ez du tutoretzarako denborari dagokion soldataren zatia estaltzen, baldin eta tutoretza eskola-orduetatik kanpo egiten bada.

Dekretu Proiektuaren 11. artikulua.

Gure ustez, artikulua honen 3. paragrafoan ezarritako "isiltasun negatibo"aren aipamena ahal den neurrian baztertu behar da administrazio-praktikatik, isiltasun hori Administrazio Prozedurari buruzko Legean aipatuta badago ere. Administrazioak, administrazioari zerbitzu onik egitekotan, enplegua sustatzeko eginkizun aktiboagoa hartu behar du. Egin-eginean, enplegua sustatu egin gura da Administrazio Prozedurari buruzko Lege berriaren bitartez. Hain zuzen ere, lege horrek "isiltasun positiboa" dakar beritasun bezala, aurrea administrazioak hartzen duenean gertatzen den "isiltasun positiboa". Kasu honetan hori gertatzen da.

Dekretu Proiektuaren 12. artikulua.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordeak egoki deritza artikulua honen 2. paragrafoan "izaera bereko laguntzak edo diru-laguntzak" kendu eta beronen ordean "edonolako laguntzak edo diru-laguntzak" jartzeari, 9. artikuluan aipaturiko arrazoi berberengatik.

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Txandakako Prestakuntzarako Praktiken Programa araupetu duen Dekretuaren Proiektua tramitatzea, kontsulta-organo honek egindako kontsiderazioekin.

Bilbon, 2001eko Urtarrilaren 31an

OE. Burua
Rafael Puntonet del Río

Idazkari nagusia
Manuel Aranburu Olaetxea

EUSKADIKO CC.OO. SINDIKATUKO ORDEZKARIAK EGIN DUEN BOTO BEREZIA

CC.OO. Sindikatuak irizpen honen aurkako botoa bidezkotu du eta, ondorioz, bere boto berezia ondoko arrazoi hauetan oinarritu duela esan du:

Lehenengo eta behin, ez du inolako zentzurik dagoeneko abenduaren 26ko 304/2000 Dekretua bihurtuta dagoen eta 2000ko abenduaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen proiektu bati buruzko iruzkinak egiteak eta, beraz, edozein iruzkin edo hobekuntza egitea alberriko kontua da, Jaurlearitzak araua onetsi zuelako.

Bigarrenik, irizpenaren edukiari buruzko oharren arloan sartuta eta, praktikan eraginkorrak ez direla jakinik xede bakarra gure ezadostasunaren berri ematea edo horretan nabarmendu ditugun mentsak azpimarratzea dela, CC.OO.rentzat garrantzitsuenak direnak azalduko ditugu:

1. Praktikak egiteko aldia, gehienez, 11 hilekoa da, eta uste dugu gehiegi dela prestakuntzako osagarri praktikoa zuzkitzeko eta, aldi berean, prestakuntza izan beharrean enpresa horien ekoizteko prozesuetan esku hartzea izateko arrisku handia sortzen du. Zilegi diren praktika horien ordu kopuruak aise gainditzen du Lanbide Heziketa arautuko lan zentroetako prestakuntzako moduluan aurreikusi den munta. Areago, egoera horrek txarrera egiten du urteko hamabi hileetara zabalitzeko eskatzen denean, nahiz eta gauza jakina izan Lanbide Hastapenatarako eta Zereginetako Prestakuntzarako Zentroetan, behintzat irakaskuntzari dagokionean, abuztuan zehar itxita egoten direla.
2. Badago beste mentsa aipagarri bat, hitzarmenak kontrolatzeko hiruko organorik ez egotea, hots, sindikatuen eskuordetza izango duena. Eta arazoa larriagoa da egon daudelako zeregin hori betetzeko gauza diren organoak, esaterako Lanbide Heziketarako Euskal Kontseilua, horrek duen Lan Zentroetako Prestakuntza Batzordearen bidez, edo enplegu eta prestakuntzako egitarauen jarraipena egiteko Batzordea, une hauetan egon daudenetarikoz batzuk aipatzearen eta berandutzarik gabe honen ardura har ditzaketenak.

Eta erasota gera dadin, honako boto berezi hau eman dut ondore horretarako ezarrita dagoen epearen barruan Bilbon, bi mila eta bateko otsailaren batean.

José Luis Ruiz García

EUSKADIKO COMISIONES OBRERAS SINDIKATUKO ordezkaria